

## **Anai Nikolas Berasategiren hiletako homilia**

Irun, 2016.07.04

Anai Jose Roman Perez, Ikuslari Laguntzailea

*Eukaristiako irakurgaiak: 1Ko 13,4-13; Jn 12,20-26*

Anai Luis bihotzekoa, Nikolasen anai-arreba eta senideok, Donostiako eta La Salle-eneako Anai maiteok, Anai eta lagunok. Agur bero bat guztioi.

Nikolas, gure Anai maitearen heriotzak bildu gaitu hemen, La Salle-enean.

Uztailaren egun honetan Salletar elkarteak Pazko berezia ospatzen du, Nikolasen agurrarena. Eukaristia honetan guztiok genion estimu handia adierazi nahi diogu, Nikolasek askotan egin izan zuen bezala beste Anai askorekin bere bizitzan zehar. Izan ere, Nikolasek, aurretik joan zaizkigun beste Anaiek bezalaxe, Kristau Eskoletako Anai gisa eman du bizitza salletar misioaren zerbitzuan.

Ikasturte bukaera une aproposa izaten da balantzea egin eta Jaunari eskerrak emateko, Harengandik jaso dugun on guztiengatik. Gaur, arrazoi horietako bat Nikolas da, bizitzan iparra aurkitzen lagundu digun izarra izan baita.

Ostiral arratsaldean egon ginen berarekin azkeneko aldiz. Haren begiradak eta keinuek agur-airea zuten. Gaixotasunaren abaildurak kutsatutako agurra eta barruko bakea lotu nituen, aldi berean.

Guztiok izango dugu geure heriotzarekin hitzordua. Une larria, baina fededunok zera espero dugu, azkenean ere *biziak aurrera egingo duela Kristori esker*, eta heriotza indarrrik gabe geldituko dela. Gure Anai Nikolasen azken ordua ostiral goizean hasi zen, bere osasun-egoerak okerrera egin zuenean, baina azken urrats hauek ere eskuzabaltasunez eta ontasunez betetako biziera baten aztarnak izan dira.

Senide, Anaien eta sendagile eta erizainen bitartez, Jainkoak kontsolamenduzko hitzak xuxurlatzen zizkion bihotzera, lasai egin zezan mundualdi honetako azken bidaia, Aita eta Ama dugun Jainkoaren magalera.

Gure Anai Nikolas *Jaunagan* hil da, fedean sendotuta, 75 urterekin. Bihotz onberatasunean eta apaltasunean sustraituta eman ondoren bizitza, Kristau Eskoletako Anaia izanik, joan zaigu. Lasaitasunez baitaratu da Jainkoaren bihotzeko maitasun errukiorrean, haren besoetan.

Nikolasekin gizon on bat joan zaigu, hurbila, eskuzabala, bihozbera, estilorik finenean lotzen jakin dituen Jesusen segimendua eta senide, lagun eta gazteei eginiko zerbitzua. Besteek emana, ontasunez bete gaitu bere inguruan mugitu izan garen guztiok. Nikolas hitz gutxikoa izan da, baina utzi duen arrastoa sakona da. Haren begirada, haren hitz leunak aski ziren gizon aparta baten aurrean geundela jabetzeko, gizatasunez, sentiberatasunez betea.

Nazareteko Jesusek erakutsi zigun posible dela bihotzaren taupaden arabera bizitzea, ez dela alferrikako ilusio iheskorra, eta jenderik xumeenak direla hori hobekien ulertzen dutenak, sufrimendua eta heriotza bera maitasun eta bizi bilakatuta.

Nikolas, Aranguren Txiki baserrian, Olaberrian, jaiotzen zen 1940ko abenduaren 4an. Gurasoak Jose eta Bernardina. Bederatzi anai-arreba. Nikolas, txikitan, Beasaingo Loinazko San Martin salletar eskolara joan zen. 13 urterekin etorri zen etxe honetara, Anaia izateko asmoz, bere anai Luisen urratsei jarraituz. Hemen egin zuen Nobiziatu Txikia, Anai Antonio Zufiriaren gidaritzapean, eta ondoren, Nobiziatua San Asension.

Oinarrizko formazioa bukatuta, 19 urterekin, hemen, La Salle-enaren alboko "Escuela Aneja"ren zerbitzurako sortu zen lehenengo elkarteko kide izan zen. Anai gaztez osatutako elkarte. Bi urtez egon zen bertan, eskola berri bezain xumeak berarekin zituen zailtasunak eta ilusioak biziz.

Ondoren San Asension eman zituen hamabost bat urte. Urte luze haietan San Asensioko Anaiak eta langileak, eta batez ere formazioan ziren gazteak izan ziren Nikolasen ahaleginen eta ondo egindako lanen lekuko. Nikolasek, bere talentuei etekina atereaz eta zerbitzu neurrigabeaz, hartu zuen parte Anai izateko eta salletar misiorako prestatzen ari ziren gazteen ibilbidean.

1977 ezkerro, Donostiako La Sallen izango dugu. Bere etxea izango da 39 urteetan. Hasieratik bere gain hartuko du sukaldearen ardura orokorra eta eraikinen mantenduarena, arlo hauetako langileenarekin batera. Eta Ikastetxeko mutilen barnetegia bukatu zenean eta egoitza unibertsitarioentzat zabaldu, egoitzaren ardura ere bere gain hartu zuen. Harrigarri zein nolako gertutasun eta maisutasunez kudeatu zituen harreman guzti hauek, bai gazteekin bai sukaldari eta beste langileekin. Denen lagun egin ohi zen eta denek lagun eta adiskidetzat zuten. Izan ere bera zen lanean eta laguntzen lehena, eta detaile ugari izaten zituen batzuekin eta besteekin. Beti zerbitzari izaten saiatu zen, zintzotasunez eta eskuzabaltasunez, bere sagarapen erlijiosoak eskatzen zionaren arabera.

Bere izaeratik eta hautapen pertsonaletik bihotz sendoa landu zuen bere baitan, zailtasunei aurre eginez eta bere ahuldadeak ahuldade zerbitzari izanik, pertsonak diren bezala onartuz. Bihotz zabaleko izaten saiatu zen, lana obligazio bainoago elkarteak bere eskutan jarritako misiotzat hartuz. Bihotz handiko, mugei aurre eginez eta harremanak gizatasunez olioztatuz, bere gurutzeta gainean hartuz eta ingurukoenez arreta izanik. Jainkoarekiko harremana ez da neurtzen erabilitako hitzen eta otoitzen kopuruaz, lagun hurkoarekiko jokaeraz baizik.

Nikolas pertsona leiala eta arretatsua izan da guztiekin, eta bereziki, gazteekin, haien ikasketak errazteko eta elkarren arteko harremanetan hazten joan zitezenean. Inoiz ez bere baitan zentratua, baizik Nazareteko Jesusengan fidatuz, zoriontsu izan zen besteak zerbitzatzean bere bizitzako azken era arte, gaixotasunak bere ahalmenak murriztu zituenean ere.

Anai Nikolasengan nabarmendu beharrik izan ez duen biziera sagaratua antzeman izan dugu. Edith Stein-ek esan zuen, egunen batean konturatuko garela albiste ez izandako

pertsonak eraman dutela, batez ere, aurrera historia. Eta gaur, Nikolasengan nabarmen ageri zaigu egi hau.

Azken bolada honetan osasun arazoak eta mugitzeko zailtasunak eta oinazeak areagotu egin zitzaizkion. Bizitasunez gainezka zen Nikolas bezalako gizonarentzat, inolaz ere erraza ez zitzaion egoera honetan, miretsi egin dugu mugei eta sufrimenduei aurre egiteko izan duen adorea.

Hemen gauden guztiok gara lekuko, gari-ale onaren antzera, Nikolasen bizitzak ontasunaren, eskuzabaltasunaren eta gizatasunaren fruituak eman dituela, fruitu ugari eman ere.

Ezin utzi aipatu gabe, Nikolasek inoiz ez zituela ahaztu bere erroak, eta euskara izan zuela arnasbide eta adierazpide. Honetan ere jarraibide dugu.

Idazle frantses bat aipatuz bukatu nahi nuke. Christiane Singer-en honako hau dio: "Bizitzaren bukaeran ez dizute galdetuko nor izan zaren, baizik zer utzi duzun zure bidez pasatzen". Alegia, zeren transparentzia izan zaren, zure bidez agerian zer azaldu den. Sakontasunezko pertsona ez denak, bere burua besterik ez du islatzen. Uste dut Anai Nikolasek Jainkoaren presentzia nabarmendu duela zerbitzuaren eta keinu ugarien bidez, hitz jarioaren bidez bainoago. Nikolasen oroitzapenak lagundu egingo digu eta kemena emango geure bizitzaren ibilbidean

Orain, meditaziorako isilune honetan, ireki diezaiogun bihotza Jaunari eta eskerrak eman, Haren dohain izan dugulako Nikolas, ezin hobeto erakutsi baitigu Jainkoaren errukia eta maitasuna. Nikolasen bizitza izan dakigula esperantzaren euskarri.

Anai Nikolas, mila esker, eta Egun Handira arte!